

Esan gabekoen hondakinak

Zaldibarko hondakindegiko lur-jausiak astindua ekarri du Durangaldera. Herritarak kezkatuta daude airearen eta uraren kalitatea dela-eta, eta haserreak kalera irten du. Jaurlaritza arazoari tamaina hartzeko ahaleginetan dabil. Bitartean, behargin bik desagertuta jarraitzen dute • 2-5





Kezka airean dago...

Zaldibarko hondakindegiko lur-jausiak argitu bako galderak eta lurak irentsitako langile bi utzi ditu. Inguruko herritarrek kezkatuta daude airearen eta uraren kalitatea dela-eta, eta haserreak kalera irten du. Jaurlaritza arazoari tamaina hartzeko ahaleginetan dabil

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibar izan da erdigunea. Eitzaga, epizentro. Baina astinaldia inguruko herri eta eskualdeetan ere nabaria izan da. Joan den eguneko lur-jausitik hona, albisteak atalka heldu dira. Azkenak, atzo. Edizio hau ixterako, Antonio Sololuze eta Joaquín Beltrán langileak lurpetik ateratzeko lanetan zebiltzan erreskate taldekoak. Hala azaldu zuen Josu Zubiaga segurtasun sailburuordeak Zaldibarren egindako agerraldian. Koordinaziorako eta jarraipenerako mahai teknikoaren lehenengo batzarra egin zuten atzo.

Oraindino piztuta dagoen suteari buruz, badira berritasunak. Azaldu dutenez, uragaz bakarrik ezingo dute sutea amatatu. Harea gainera

botatzea ere beharrezkoa izango da. Kontua da suhiltzaileek ez dutela oraindino sutearen ingurura gerturatzeko aukerarik. Egunotan

Uragaz bakarrik ez; suhiltzaileek harea ere beharko dute sutea amatatu ahal izateko

han ibili den suhiltzaileetarikoa baten ere halaxe esan dio ANBOTOrri: "Makinak bertaratu ezean ezer gutxi" egin dezaketela azaldu dute, ura segurtasun perimetro batetik botatzen aritu dira eta. Baina sutearen ingurura tresneria egokia era-

mateko, lurra egonkortu beharra dago lehenengo. Hori, oraingoz, ez dute lortu.

Zaborrak ez doaz Mallabira

Hondakindegitik erretiratzeko dabilen materialak nora eramanez aritu da Jaurlaritza asteon. Aukeratariko bat Mallabiko zaborteagira eramatea zen hasieran, hangoa baita amiantoa jasotzeko gai den hondakindegietarikoa bat. Azkenean, baina, ez da hala izango. Mallabiak ez ditu hondakinak jasoko. Eta hauxe da azalpena: orain arte, zaborteagiko hondakinak ez-arriskutsu lez zeuden sailkatuta, baina Jaurlaritzak aldatu egin du kategoria hori. Atzotik, hondakin arriskutsu kategoria hartu dute.

Eta ikusirik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hondakindegia prestatu barik daudela hondakin arriskutsuak hartzeko, bada, Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eramango ditu Zaldibarko hondakinak.

Jaurlaritzak zazpi eguneko epea eman zion enpresari hondakin zerrenda aurkeztu zezan

Hondakinen zerrendarik ez


Hondakindegian urte hauetan guztietan biltegitatu diren hondakinei buruzko susmoak kalean daude. Jaurlaritzak, antza, ez du zaborteagian dauden hondakinen zerrendarik. Horren erakusle da Verter Recycling 2002 S.L. enpresari

zerrenda bat aurkezteko eman zion zazpi eguneko epea. Josu Zubiaga Segurtasun sailburuak joan zen barikuko lehenengo orduan baieztatu zuen amiantoa zegoela. Zapatuan, Ekologistak Martxanek lindanoa ere egon zitekeela iradoki zuen. Elena Moreno Ingurumen sailburuordeak, baina, gezurtatu egin zuen lindanoaren aukera.

Beraz, Jaurlaritzak badaki amiantoa dagoela eta lindanorik ez dagoela, baina ez du zaborteagiko hondakinen zerrendarik. Berria egunkariak aurreratu zuen amiantoa ez zela modu egokian biltegitatzen, eta horixe bera baieztatu zion Berriari Jaurlaritzak berak, gerora.

Su haietatik, ke hauek

Verter Recycling 2002 S.L. hondakindegiko ezbeharrak ezkutuan egondako hainbat arazo eta irregularitasun zantzu ateratu diturik



eta haserreka kalean

argitara. Irregularitasun zantzu haietatik, lur-jausia eta behargin biren desagerpena. Lur-jausi hartatik, sutea. Eta su haietatik, ke hauek. Bai sutearen beraren kea, eta baita egoeragatik sutu diren herritarrena ere. Izan ere, ingurumenarekiko kezkak eta agintarien "informazio faltak" herritarren ezinegon hantzen baina ez dute egin.

Urik ez, badaezpada

URA agentzia eta osasun teknikariak hainbat ikerketa egiten ari dira Eitzaga inguruetako ur-txorrote-tan. Agintariak beldur dira hondakindegiko lixibiatuak ez ote diren lurretik iragazi eta erreketara zein ur kontsumorako txorroretara ailegatuko. Zaldibarko Udalak txorroreko urik ez edateko eskaria egin zien Eitzagako auzotarrei. Hango inguruko hainbat "ur-hartze pri-

batutan" azaldutako "datu batzuk" zirela-eta egin zuen eskaria udalak, "modu prebentiboan". Ur-kontsumoaren arazoa behin-behinean konpontzeko, ur-tanke bat ekarri dietela azaldu diote ANBOTOrri auzotar batzuek.

Lixibiatuak erreketara eta ur-txorrotetara heldu ote daitezkeen beldur dira agintariak

Airearen kalitatea da osasun publikoko beste kezka nagusia. Egunotan jasangaitza izan da Eitzaga inguruetan egondako hatsa. Ingurumen sailak airearen kalitatea neurtzeko gailu bi ipini ditu han, eta kalitatea "parametro egokietan" dagoela diote.

Lan istripuak

Alberto Sololuzeren eta Joaquin Beltranen desagerpenak handitu egingo du urtea hasi zenetik hona Euskal Herrian lanean hildako beharginen kopurua. Desagertutako langileetarik baten familiako kide batzuek "mina" eta "haserreka" agertu dituzte hedabideetan. Jaurlaritzagandiko "informazio falta" salatu dute, eta esan dute ez dutela adierazpen gehiagorik egingo harik eta "gorpuak agertzen diren arte". Hainbat sindikatuk protesta egin zuten eguaztenean Eusko Jaurlaritzaren Bilboko ordezkaritza, lan istripuak salatzeke. Ez ziren bakarrik izan. Ehunka herritar batu ziren astelehenerako deitutako manifestazioetan Zaldibarren, Mallabian, Ermuan eta Eibarren.

Mobilizazioak zapatuan

Zapatu honetarako, manifestazio bateratura deitu dute. Eibartik, Elgetatik eta Ermutik irtetekoak diren manifestazioek Eitzagan bat egingo dute. Mobilizazioek 17:00ak aldera irten-go dute Eibartik eta Ermutik;

Hiru manifestazio zutabek bat egingo dute Eitzagan, "Zaldibar argitu orain!" lelopean

16:30ean Elgetatik. Zapatuko mobilizaziora maskaratxoagaz joateko deia egin dute antolatzaileek. "Zaldibar argitu orain!" lelopean egin dute manifestaziorako deia.

Hondakinak zenbakitan

• 9.781 TONA AMIANTODUN MATERIAL, GUTXIENEZ

Eusko Jaurlaritzaren esanetan, 2017tik lur-jausia gertatu arte, 9.781 tona amiantodun hondakin zegoen pilatuta. 2.954 tona sartu ziren 2017an, 2.592 tona 2018an eta beste 4.235 tona iaz. Eraikuntzarako materiala zen gehienbat: plakak, tutueriak eta zuntzementuzko kanaletak.

• IAZ, 510.994 TONA HONDAKIN GUZTIRA

Jaurlaritzaren esanetan, 2017an 379.689 tona hondakin sartu ziren enpresan. 2018an 540.667 tona, eta iaz beste 510.994.

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA / J.G.

Edurne Zarraoa Ganboa arrazolarra (Atxondo) eta Jose Antonio Elustondo eitzagatarra (Zaldibar) Verter Recycling 2002 hondakindegitik 500 metrora bizi dira. 14 urtetik hona, andre-gizonak hondakindegia-
ren "pare-parean" bizi dira, ondoko mendi magalean. Lur-jausiaren ondorengo egunetan, Atxondora joan ziren behin-behinean. Azken egunetan, Eitzagara bueltatu dira.

14 urte daramatzazue Eitzagan. Hondakindegiko lur-jausia gertatu eta gero, etxetik joatea erabaki zenuten.
Edurne Zarraoa: Ke beltza ikusi genuen. Kanpoko atea zabaltu eta gure ateraino zetorrela konturatu ginean. Hatsa zekarren. "Aldean daukaguna hartu eta goazen hemendik", esan zidan gizonak. Ezer barik joan ginen

Jose Antonio Elustondo: Hautsa eta kea zegoen alde guztietatik, eta inor ere ez zen etorri hura aztertze-
ra. "Zelan gaude gu hemen?", pentsatu genuen. Horregatik, Atxondora etortzea erabaki genuen. Abere batzuk ditugu baserrian, Eitzagan, eta batera eta bestera ibili izan gara, haiek gobernatzeko.

Beldur zarete?

J.A.E: Kutsadurak kezkatzen gaitu. Hondakindegia mugimenduak ez liguke eragingo, baina kutsadurak bai. Ez dakigu giroan zer dagoen.

E.Z.: Ura neurtzen ari dira. Baserri batean, esate baterako, alde batekoek ur ona dute eta bestekoek txarra. Depositu bera da. Zelan ulertu daiteke hori? Hango andrea botilako ura edaten dabil hiru urtetik hona, ikusten zuelako ur hori ez zela ona.

J.A.E: Orain arte ez dugu ezer jakin [lur-jausitik bost egunera esan diete txorroteko urik ez edateko]. Gainera, urteak daramatzagu hemen.

Zein jarraibide eman dizute?

J.A.E: Txorroteko urik ez edateko eta ortuko berdurarik ez jateko esan digute. Baina abereak dituztenak arduratuta daude. Ardiak larrean dabilta, eta hango belarra jaten dute, jakina. Ona ote da haien esnea? Ona behien okela? Ala kutsatuta egon daiteke? Urduri gaude.

E.Z.: Orain, ur depositu batzuk eka-

"Mediku-azterketaz gainera, gure osasunaren inguruko jarraipena egitea eskatzen dugu"

Eitzaga auzoko bizilagunek barruraino sartuta dute beldurra. Airearen kalitatea parametroen barruan dagoela esaten dieten arren, kezka bizi dute egoera



rri dizkigute auzotarroi, ura handik edateko. Gure ortuko porruak, berdurak eta frutak ere hartu dituzte, azterketak egiteko.

Ingurumen Sailak dio airearen kalitatea parametro normaletan dagoela. Lasaitu egiten zaituzte horrek?

E.Z.: Ez.

Lur-jausiaren aurretik usainik edo igartzen zenuten?

J.A.E: Haizea gurera zetorrenean, hatsa zekarren. Lehen, tximinia batzuk zeuden zabortegean, barruko gasak kanporatzeko. Tximinia haiek ez ditugu aspaldian ikusi.

E.Z.: Hondakindegia geroago eta handiagoa zela konturatu ginen.

J.A.E: Udalekoek esaten zuten kon-

“**Udalekoek esaten zuten kontrol handia zegoela eta teknikariak astean birritan etortzen zirela**”

JOSE ANTONIO ELUSTONDO

trol handia zegoela eta teknikariak astean birritan etortzen zirela.

E.Z.: Orain agertu da irregulartasunak zeudela.

Kamioi asko ibiltzen zen hondakin-degi horretan?

J.A.E: Asko. Joan-etorri handia zegoen. Goian, zortzi-hamar kamioi batzen ziren askotan.

Lur-jausiaren momentuan, non zeundeten?

E.Z.: Etxean nongoen. Kortatxo bat dugu eta handik etxerantza nindoala, zarata handi bat sentitu nuen. Elur-jausi baten antzekoa izan zen, goitik behera. Eskuak burura eraman nituen, Etxebarri baserria harrapatuko zuela pentsatu nuen eta. Lur-jausia gertatu zenean, lur artean kamioi bat ikusi nuen, lur mugimenduen eraginez gora egiten, metro nahikotxo, eta gero irunsi egin zuen lurrak. Ondoren, isiltasuna nagusitu zen

inguruaz.

J.A.E: Ermuan nongoen. Edurnek deitu egin zidan eta Goierritik etorri nintzen. Ego ondoan autobide guztia geldituta ikusi nuen. Helikopteroak eta jendea gora eta behera ikusi nituen. Alkatea ere etorri zen. Edurnek kamioiari gertatutakoa azaldu zion. Uste genuen agian baten bat barruan egon zitekeela. Gero enteratu ginen barruan ez zegoela inor.

Jose Antonio, zu mekanikaria izan zara eta hondakindegiko kamioiak konpondu izan dituzu.

J.A.E: 40 urtetik gora egin ditut garajeen lanean. Horko kamioiren bat ekartzen zutenean erroberak edo zapatak ateratzeko, askotan hazkura izaten nuen ezpainenetan. Arratsalderako ere zikin izaten

“**Eskuak burura eraman nituen, Etxebarri baserria harrapatuko zuela pentsatu nuen eta**”

EDURNE ZARRAOA

nuen buzoa. Beste hainbat lekutako kamioiak ere konpondu izan ditut, eta ez dut inoiz ere sentitu horrelakorik. Ez dakit nire kontua den bakarrik edo inguruko tailerretan ere berdin gertatzen zitzaien.

Zer eskatzen duzue eitzagatarrek?

J.A.E: Azterketa mediko bat egitea gura dugu. Ertzainak eta larrialdietakoak txakurrekin ibili dira eta azterketa egin diete. Guk urteak daramatzagu hemen.

E.Z.: Mediku-azterketaz gainera, gure osasunaren inguruko jarraipena egitea eskatzen dugu, auzotar guztiontzat. Lur-jausia gertatu zenean, autobide ondoko etxe bitako bizilagunak hasierako momentutik atera zituzten etxetik, eta ez dute informaziorik. Hori da eskatzen duguna, informazioa. Bestalde, langile biak aurkitzea lehentasuna da guretzat. Babesa adierazi gura genieke euren familiei.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko otsailaren 14a
18. urtea - 794. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Eusko Jaurlaritzan zer egin ez dakitela dabilta egunotan”

Eitzagako auzotarrek "informazio falta" salatu dute. Oskar Morales auzokideak gaineratu du inguruko herriek "ahaztuta" dutela auzoa. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzak eta Zaldibarko Udalak "ganora falta" izan dutela adierazi du



ZALDIBAR • IGOR GALARZA

Oskar Morales Eitzagako baserri batean bizi da. Batzar ugari egin ditu beste auzotar batzuekin batera, alkateagaz zein alkateordeagaz, auzotarrek idatzitako manifestua betetzeko eskakizuna helarazteko.

Lan egokia egiten dabiltzala uste duzu?

Badago baserri bat, Etxebarri base-
rria, zabortegetik oso gertu dago-
na eta ez dutena hustu. Ulertezina
da airea neurtzen aritu direnak za-
bortegetik gertuen dagoen baserri-
ra joan ez izana. Bestalde, ederto da-
go suhiltzaileei eta bertan lanean
aritu direnei azterketa medikoak
egitea; baina horrenbeste urtean
hemen bizi garenoi, zer? Harriga-
rria da zabortegetik gertu gaudenoi
mediku-azterketarik ez egitea.

**Instituzioak ondo dabilta ardurak
betetzen?**

Eitzagan ganorarik barik dabilta,
bai Eusko Jaurlaritzatik, bai eta
Zaldibarko Udaletik ere. Ulergarria

da udala noraezean aritzea, gai
potoloa delako. Baina Eusko Jaurla-
ritzan zer egin ez dakitela dabilta
egunotan.

Euriagaz lanak zaildu egin daitezke.

Esan dute euriagaz gauzak zaildu
gingo direla, bai. Ez gara bizi Saha-
ran, eta Euskal Herrian hamabost

“**Sekulako kamioi
trafikoa zebilen
inguruetatik. Egunean
ehunka kamioi
zetozen hona**”

egunean jarraian euria egin deza-
ke. Gainera, ura iragazten hasita
dago, ura sartzen. Ez dakit zer den
iragazten hasi dena hain zuzen,
baina lur geruza apurtuta dago.

**Aurretik ere arazo gehiago egon dira
zaborteziagaz?**

Orain urte batzuk, beste zabortege
bat zegoen Verte Recycling dagoen
tokian bertan. Auzoko jendeak ez
zuen zabortege hura eraikitzerik
gura, eta arazo asko egon ziren.
Kontatu didate bere garaian auzo-
tarrek galdeketa bat egitea adostu
zutela udalagaz, baina ez zutela
inoiz ere gauzatu.

**Igartzen zenuten ezer arrarorik za-
bortegetik gertu?**

Gauza arrarorik ez, baina sekulako
kamioi trafikoa zebilen inguru-
tetatik. Egunean ehunka kamioi
zetozen hona, batzuk Espainiako
eta Frantziako estatuetatik, edozer
botatzera. Oso urrutitik zetozen,
merkea delako zabortegei honetara
botatzea.

**Zerk kezkatzen zaitu gehien momen-
tu honetan?**

Hainbat kontuk kezkatzen naute:
lehenengo eta behin, denei lez, zer
egon daitekeen zabortegean, guk ez
dakiguna; gero, baimenduta zuena
baino eremu handiagoa okupatzen
zuela zabortegeiak; eta, azkenik, gas
neurketak egin zituztenean hodi
batzuk sartu zituzten orain denbo-
ra bat, eta hodietatik kea ateratzen
zen. Oso susmagarria egiten zait
hori dena.

Orain itxarotea geratzen zaizue.

Desagertuak aurkitzea da garran-
tzitsuena orain. Osasuna eta segur-
tasuna bermatzea errazagoa da
borondate politikoa badago.

"Areition airearen hatsa ez da normala izan eta argi dago nondik etorri den"

Azkenean, ez dituzte Zaldibarko lurrak Mallabira eramango, baina beste kezka bat ere badute mallabitarrek: airearen kalitatea



Mallabian astelehenean egindako kontzentrazio zatatzuko irudia.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabian elkarretaratze zarata-
tsua egin zuten astelehen arratsal-
dean, Zaldibarko zabortegean gerta-
tutakoa argitu dadin eskatzeko. 70
bat herritar batu ziren ekimenara.

Bertaratutako herritarren ar-
tean nabariak ziren beste kezka bi
ere: Zaldibarko lurrak Mallabira
eramateko aukera eta airearen
kalitatea. Lehenengo kezka atzo
argitu zuen Elena Moreno Inguru-
men sailburuordeak. Zabortegeko
hondakin guztiak arriskutsu lez
hartuko dituztela adierazi zuen
Zaldibarko udaletxean eskainita-
ko prentsaurrekoan, eta Euskal
Autonomia Erkidegoko zaborte-
giek mota honetako hondakinik
hartzeko baimenik ez dutenez, lu-
rrak Erkidegotik kanpora eraman

beharko dituzte. Beste kezka bat
airearen egoeraren ingurukoa da,
eta mallabitarrek haren inguruko
iritzia eman zuten asteleheneko
elkarretaratzean. Aimar Sanz Aza-
girre Areitio auzoan bizi da eta
handik gertu ikusten da Zaldibarko

**Astelehenean 70 bat
mallabitar batu ziren
herritarrek deitutako
kontzentrazio zatatzuan**

zabortegea. "Gaurko [asteleheneko]
hatsa ez da normala izan eta argi
dago nondik etorri den", azaldu
zuen Sanzek zabortegea seinatuz.

Leire Martinez mallabitarren
ustez, "Eusko Jaurlaritzatik kan-

poko agente batek" egin beharko
litzuke airearen kalitatearen ingu-
ruko azterketak. "Neurketek emai-
tza normalak ematen dituztela
diote, baina eurek zer esango dute,
bada?", kexatu da. Gainera, uste du
neurketen datuak "edonork kon-
probatzeko" aukera eskaini behar-
ko luketela eta gehiago informatu
beharko luketela.

Batzar informatiboa

Mallabiko EH Bilduk jakinarazi
duenez, koalizioaren eskaera bati
erantzunez, Mallabiko Udalak
zabortegearen inguruko batzar
informatibo bat egingo du gaur
arratsaldean, 19:00etan, Kontze-
juzarrean. Bertan gai horri buruz
udalak dituen datuak eta azalpe-
nak eskainiko dituzte.

clínicadentalhortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA • HORTZ-ESKANERRA

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Zaborra biltzeko irla mugikorrak otsail amaieran ipiniko dituzte Durangoko Alde Zaharrean

Herritarrei bideratutako guneak izango dira; komertzioen kasuan, zaborren kamioiak aterik ateko bilketa egiten ibiliko dira



Kanpatorrostetako lurpeko edukiontzia kendu egingo dituzte.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangon dauden lurpeko zaborrontzi guztiak itxi eta lur gainekoengatik ordezkatzeko prozesua martxan dago. San Agustinaldeko kontainerak izan dira baliobakotu dituzten lehenengoak; museo aurreko kalean, lur gaineko edukiontzia berriak ipini dituzte. Kanpatorrostetan ere lehenbailehen egin gura dute aldaketa, plaza hartako zaborrontziek betidanik eragindako arazo eta kexengatik. Baina prozesu honek Alde Zaharrean

eragingo du aldaketarik nabarmenena, zaborrak biltzeko sistema bera moldatu egingo da eta.

Otsail amaieran, Alde Zaharreko lur azpiko zaborguneak itxi eta lur gaineko bost irla berri sortuko dituzte honako lekuetan: udaletxe ondoan, Uribarri kalean—merkatu plazaren ondoan—, Komentukalea eta Kurutziaga kaleek bat egiten duten tokian, Komentukale erdialdean—San Antonio ikastetxearen eta LAB sindikatuko egoitzaren artean— eta Bartolome Ertzilla ka-

Irla mugikorrak izango dira; arratsaldean ipini eta goizaldean kendu egingo dituzte

lean—Kale Kantoi eta Agora tabernen artean—.

Irla horiek, orain arteko edukiontziez gainera, berri bi izango dituzte: hondakin organikoena eta pilena. Alde Zaharrean ez ezik,

Durangoko Udalak herri osoan txertatuko du nobedade hori.

Irla mugikorrak izango dira; hau da, arratsaldean ipini eta goizaldean kendu egingo dituzte. Herri batzarretan irla finkoak ipintzea izan zen gobernu taldearen proposamena, baina herritarrek gurago zituzten mugikorrak, Aritz Bravo zinegotziaren esanetan.

Komertzioen kasua

Irla horiek guztiak norbanakoek bakarrik erabili ahalko dituzte.

Komertzioen kasuan, aterik ateko bilketa egingo dute. Kamoi elektriko bi Alde Zaharretik ibiliko dira eta merkatariek ordu jakin batzuetan aterako dute zabor mota bakoitza. Beraz, gaur egun komertzioen kartoia biltzeko darabilten funtzionamendua zabor mota guztietara zabalduko dute.

Neurri honen arrazoia honako hau da: datuek adierazten dute Alde Zaharrean sortzen den zaborraren %65 komertzioek sortzen dutela, eta sarritan zaborrontziak "kolapsatu" egiten dituzte eta ez da tokirik egoten norbanakoen zaborretarako. Beste arrazoi bat ere badago: "Bilketa modu horrek birziklapen kopurua igotzea ekarriko du, bilketa zehatzagoa delako", azaldu du Bravok.

Behin-behineko desajustea

Hasieran, astean hiru egunetan egingo dute komertzioen bilketa selektiboa, ez egunero. Behin-behineko egoera izango da, hile eta erdi inguruan. Apirilean, asteko zazpi egunetara zabalduko dute bilketa selektiboa.

Desajuste horren arrazoia honako hau da: herritarrek eskatuta, irla finkoak barik mugikorrak ipiniko dituztenez, horrek baliabideak handitu beharra eskatzen du, eta, aurrekontuetan aurreikusita dagoen arren, tramiteek (aurrekontuak behin betiko onartu, zabor bilketen kontratua aldatu...) denbora eskatzen dute. "Herri batzarretan aipatu genuen desajuste hori gertatuko zela, baina hala eta guzti ere herritarrek gurago izan zuten irla mugikorraren aukera", zehaztu du Bravok, udaleko Lurralde Saileko arduradunak.

Durangoko Udalak 135 neurri aurkeztu ditu legegintzaldi honetarako

Ekintza "argiak eta neurgarriak" izango direla azaldu du, "legegintzaldiaren iparrorratza"

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko udal gobernu taldeak legegintzaldirako plana aurkeztu zuen martitzenean. "Legegintzaldia amaitu arteko gure iparrorratza izango da", adierazi zuen Ima Garrastatxu alkateak. Besteak beste, ludoteka eta gazteleku zerbitzuak martxan ipiniko dituzte, eta baita Taxi Lagun egitasmoa ere. Horrez gainera, indarkeria matxistaren ondorioz hildako emakumeak omentzeko gunea sortuko dute.

EAJren ustez, baina, udal gobernuak "zerrenda soil bat" aurkeztu du, "planifikaziorik, norabiderik eta zehaztasunik bakoa".



Ima Garrastatxu, aurkezpenean.

Durangoko Hizkuntza Eskolak bere 25. urteurrena ospatzen du aurten

Ospakizuneko ekitaldietariko bat bariku honetan egingo dute. Konkolonbarda bikoteak kontzertua eskainiko du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialak, Durangaldeko hainbat hizkuntza ikasleren erreferente ere badenak, bere 25. urteurrena betetzen du aurten. Bariku honetan bertan egingo dute urteurrena ospatzeko ekitaldietariko bat,

izan ere, Konkolonbarda bikoteak kontzertua eskainiko du bertako areto nagusian, 19:00etan. Durangoko Hizkuntza Eskolan eskaintzen diren hizkuntzak—euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana—ahoa hartuta osatuko dute kontzertua.



Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitza.



Gremioen gida

anboto

Eraikuntza eta birgaikuntza

ARRETXE GESTION
ERAIKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZA

TXALETA - TXOKOTA
FATKADA - BASERRIA
ETXEBIZITZA - TEILATUA
NABEA - ERATSETA
INPERMEABILIZAZIOA
MARMO LGINTZA - HARGINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM
INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubi 10 B. Industrialea, 13-14 pab. IABADIÑO
944 071 791 - 692 852 779

Zurgintza

ATERPE AROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Elkarguneak sortuz, gazte eta nagusien artean zubi bat eraikitzen dabilta Elorrion

Hilean bi-hiru bider batzen diren 'Sormening' ekimenean, Elorrioko hiru ikastetxeetako 78 gaztek eta Berrio-Otxoa, Esperanza, Elorrio-Lore eta Bizidun nagusien elkarteetako 50 bat herritarrek parte hartu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain lau urte, generazio ezberdinen arteko hartu-emanak bultzatzeko asmoz, Elorrioko Udalak *Sormening* ekimena martxan ipini zuen. Harrezkero, Elorrioko gazte eta nagusiek elkarguneak sortu dituzte, eta euren artean zubi bat eraikitzen ari dira. "Sormeningek elkar ezagutzeko eta jakituria partekatzeak aukera eskaintzen du", adierazi zuen Onditz Mendizabal koordinatzaileak martitzenean udaltxean egindako prentsurrekoan.

Onditz Mendizabalek eta Maria Herrero alkateordeak batera, sei gazte eta nagusi bik parte hartu zuten prentsurrekoan. Generazio ezberdinen artean sortzen diren hartu-emanen garrantzia azpimarratu zuten zortziek, baita elkarrengandik ikasten dutena ere. "Oso pozik parte hartzen dut ekimen honetan, eta urte askoan parte hartu gura nuke. Gazteek gauza asko erakusten digute nagusioi, eta baita geuk ere euri", aitortu zuen Jone Maturanak. Gregorio Reyesek ere gazteengandik "asko" ikasi duela azpimarratu zuen.

Ikasleak ere oso pozik daude ekimenean parte hartzeaz. "Nagusi izan arren, gauza asko egin daitezkeela erakutsi digute, eta eurekin oso ondo pasatu daitezkeela", esan



78 gazte eta 50 bat nagusi parte hartzen dute ekimenean.

zuen Garazi Eriz Elorrio BHIko ikasleak.

Antolatzaileak ere gustura daude lau urte hauetan Elorrion egindako lanagaz. "Gazteek eta nagusiek kalean bat egiten dutenean, elkar agurtzea da guretzat bereziena eta politena", esan zuen Mendizabalek. Maria Herrero alkateordeak ekimenagaz "oso pozik" daudela

esan zuen, eta eskerrak eman zizkien partaideei. Horrez gainera, ekimenak jarraipena izango duela eta aurrekontuetan horretarako diru atal bat gorde dutela jakinarazi zuten bertaratutakoek.

Hilero biltzen dira

Hilean bi edo hiru bider elkartzen diren ekimenean, Elorrioko hiru

ikastetxeetako 78 gazte eta Berrio-Otxoa, Esperanza, Elorrio-Lore eta Bizidun elkarteetako 50 bat nagusi parte hartzen dute.

Sormening taldekoek jakinarazi dutenez, ikasturte osoan zehar hainbat ekintza egiteko batzen dira. Josten, dantzan, inausketa lanetan eta mahai-jokoetan ibiltzen dira, besteak beste.

Bidegain kalea konpondu dute, herritarren segurtasunerako

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Oinezkoen irisgarritasuna eta ibilgailuen zirkulazio segurua bermatzeko asmoz, Berrizko Udalak Bidegain kalea berrurbanizatu du. Horretarako, espaloiak zabaldu dituzte, eta ibilgailuentzako bidea ere zabaldu dute. Bestalde, kalearen alde bietara aparkalekuak ipini dituztela eta garajeetako sarrerak ere konpondu dituztela jakinarazi dute.

Lanek 205.158 euroko aurrekontua izan dute.

Martxan da inauterietako mozorro lehiaketan parte hartzeko izen-ematea

MALLABIA • J.D.

Mallabiko inauterietako egitarauaren barruan, mozorroen eta abestien playback lehiaketa egingo dute otsailaren 25ean. Lehiaketa horretarako izen-ematea liburutegian egin daiteke, otsailaren 20ra bitartean. Taldeka edo banaka parte hartu daiteke, eta bakoitzak abesti bakarra aurkeztu dezake, lehiaketako oinarrietan jasotzen denez. Izen-ematea egunean bertan egiteko aukera ere badago.

Udalak eta Euskaltzaindiak toponimia mapa berritzeko hitzarmena sinatu dute

Garaiko toponimia jaso, zuzendu eta eguneratzeko asmoz, ikerketa beka bat martxan ipiniko dute aurten



Andres Urrutia euskaltzainburua eta Erramun Osa Garaiko alkatea.

GARAI • M.Z.

Herriko toponimia jaso, zuzendu eta eguneratzeko asmoz, Garaiko Udalak eta Euskaltzaindiak ikerketa beka bat martxan ipiniko dute. Horretarako, erakunde biek hitzarmen bat sinatu berri dute.

Udal iturriek jakinarazi dutenez, erakunde bakoitzak urtean zehar egin beharrekoak jaso dituzte hitzarmenean.

Garaiko Udalak 2021ean argitaratu gura du herriko toponimia mapa berritua.

Atxondoko hainbat herritarrek AHTarekiko gaitzespena adierazi dute

Eguazten arratsaldean elkarretaratze jendetsua egin zuten obren lekuan, Kapela inguruan



Hainbat herritar batu dira Kapelako obretan.

ATXONDO • E.H./M.Z.

AHTaren lanak hastekoak dira Atxondo inguruetan. Obrei hasiera emateko asmoz, AHTarentzat beharrean dabilzan langileak Kapela auzoko hainbat lur eta baso markatzen ibili dira azken hile eta asteetan. Azpiegituragazko protesta modura, langileek ipinitako markak kendu eta lurtean pilatu zituzten Atxondoko hainbat herritarrek asteburuan.

Horrez gainera, eguazten arratsaldean elkarretaratze jendetsua egin zuten Atxondon, AHTrik Ez plataformak deituta. "Atxondora heldu berri diren makinekin, herria erdi-erdi zatitu gura duen munstroa eraiki gura dute. Beraz, AHTaren obren aurrean gure gaitzespena adierazi gura dugu", esan dute plataformako kideek.

Txixiburduntzi egunean erroskillak eta tostadak ere dastagai, Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Mañarian txixiburduntzi eguna ospatuko dute domekan, 17:00etan. Jubilatuen elkarteak eta Andra Mari gurasoen elkarteak elkarlanean antolatutako ekimena da, eta plazan egingo dute. Euria egiten badu, plaza ondoko pilotalekuan egingo dute. Txixiburduntzi egunean prestatzen diren ohiko jatekoek gainera, umeen eta nagusien artean erroskillak eta tostadak kozinatuko dituzte eta dastagai egongo dira.

Martitzenean sukaldaritza tailerra egingo dute Izurtzako Argintxu elkarteak

IZURTZA • J.D.

Inauteriak hurreratzen doaz eta, urteroko ohiturari eutsita, Izurtzako Udalak horri begirako tailer bat antolatu du. Aurreko urteetan moztarroetarako osagaiak landu izan dituzte tailer horretan, baina, aurten, beste ukitu bat emanda, sukaldaritza tailerra egingo dute: tostadak eta erroskillak prestatuko dituzte. Ume zein nagusientzako tailerra izango da. Martitzenean izango da, 17:00etatik 19:30era, Argintxu elkarteak.

Transmisioan sakontzeko, Otxandioko bonbardaketari buruzko eskolak emango dizkiete 5. mailako ikasleei

Hainbat herritarren lan kolektiboari eskerrak, unitate didaktikoaren behin betiko bertsioa prest eta erabilgarri dago

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioren historia garaikidean gertakari bat nabarmentzen da beste guztien gainetik: gerra zibileko bonbardaketa, 1936ko uztailaren 22an. Hainbat herritarren lan kolektiboari eskerrak, gertaera horretan sakontzen duen unitate didaktiko bat prestatu dute. Liburuxka hori Otxandioko eskolan erabiliko dute, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin —10-11 urte—.

Asmoak Otxandioko Herri-ola egitasmoan du sorburua. Herrigintzara bideratutako proiektu horren barruan irten zen ideia, hezkuntzako gaiak jorratzen diren HEZI adarraren barruan. Gurasoak, irakasle ohiak, eskolako ordezkariak zein bestelako herritarrak batu ziren bertan. "Ikusten zen baze-goela eskolan curriculum lokala lantzeko nahia. Askotan urruneko edukiak lantzen dira eta herrikoa ez da ezagutzen", azaldu du Aloña Erauskinek, proiektuko sustatzailerik batek.

Unitate didaktiko berria joan zen astean aurkeztu zuten eskolan, irakasleen artean. Marian Zilaurren ikasketa buruaren ustez, erreminta baliagarria da "herriko historian sakontzeko". "Ikasleek herrian zer gertatu zen ikasiko dute", dio.

Bazegoen Andikonako bonbardaketaren gaineko materiala:



Hurrengo ikasturteari aurrera, unitate didaktikoaren behin betiko bertsioa erabiliko dute klaseetan.

udaleko beka baten bitartez argitaratutako liburua, bonbardaketa bizi izan zutenen testigantzak baten egindako lana... Material hori batu, sailkatu eta antolatu beharra zegoen eta herritar askok parte hartu zuten prozesu horretan, Erauskinen arabera.

Edukiari dagokionez, azalpen historikoak ez ezik, balioetan sakontzen ahalegindu dira: esatera-

ko, immigrazioan, bonbardaketa- ren ondoren kanpora joan behar izan zuten otxandiarren kasuak abiapuntutzat hartuta. Diseinuari dagokionez, liburuxkari formatu "erakargarria" ematen ahalegindu dira, eta benetako argazki histori-koekin jantzi dute.

Ikasliburua zortzi ataletan banatuta dago. Bonbardaketa aurreko Otxandion abiatu, bonbardaketa

egunetik igaro eta osteko eguneta arte. Beste bonbardaketa batzuetan ere sakontzen dute.

Unitate didaktikoa idatzizko liburuxka baino gehiago da. Atalik gehienek informazio gehigarria dute bestelako euskarrietan, direla bideoak edo direla audioak: eguna bizi izaten zutenen testigantzak, gertakizun horren harira egindako antzezlaneko zatiak eta abar.

Hasi dira Zornotzako Astepe eta Legarrebi auzoak berritzeko lanak

Zornotzako Udalak asteen ipini ditu martxan auzo biak eraberritzeko lanak. Dena ondo badoa, hiru hilabete barru amaituko dira Astepekoak; lau hilabete barru Legarrebiakoak

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Astepe auzoa eraberritzeko lanak hasi dituzte eta hainbat berrikuntza egongo dira auzoan behin lanak amaituta. Besteak beste, bertako jolasgunerako sarbidea berri, 18 aparkaleku egin eta arboladi berri bat ipiniko dute. Bestalde, Legarrebi auzoan Andrandi kaleko etxebizitzetarako sarbideak hobetuko dituzte batez ere. Eta "irisgarritasuna" eta "segurtasuna" hobetzeko asmoz, auzo bietan farolak gehitu eta espaloiak zabalduko dituzte.

217.000 euroko aurrekontua dute Astepeko lanak egiteko. Legarrebi-koen kasuan, 573.000 eurokoa da aurrekontua.



Gutxi gorabehera, Astepe auzoak honako itxura hartuko du lanen ondoren.

Mendilagun egitasmoak indarra hartzen jarraitzen du

Durangaldetik kanpoko herritarrak ere batu dira azkenengo mendi irteerara. Berbalaguneko kideak pozik daude harreragaz

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA.

"Mendilagun egitasmoa arrakasta hartzen dabil. Horren erakusgarri da egin berri dugun azkenengo mendi irteera. Durangaldetik kanpoko jendea ere etorri da, Bilbotik eta Donostiatik, besteak beste", azaldu du Irati Anakabek, Duran-

galdeko Berbalagunen koordinatzaileak. Joan zen asteburuan egin zuten azkenengo irteera. Durangotik hasi eta Axpen amaitu zuten ibilaldia, aurretik Mendiolako inguruak bisitatuta. Mendilagun egitasmoak eskualdeko mendi taldeen laguntza jasotzen du.



Durangotik irten, Mendiola inguruak zeharkatu eta Axpen amaitu zuten azkenengo ibilaldia.

Tokiko erakundeek 2020an Mugiment proiektua eta Kirol Txartela Durangaldean martxan ipintzeko asmoa iragarri dute

Mugiment txartelaren proiektu pilotua 2017an sortu zen, Bizkaian, eta beste herri batzuetako instalazioak partekatzeko aukera eskaintzen du



Durangoko kiroldegia.

DURANGALDEA • A.M.

Durangaldeko hainbat udalek Mugiment proiektura batzeko asmoa iragarri dute asteon. Kirol proiektua eta kirol txartela 2017an ipini

zituzten martxan, Bizkaiko herri batzuetan. Denbora honetan, Ezker aldeko eta Meatzaldeko hamasei udalerri batu dira proiektura. Guztira, kirol txartelak 2.790 erabiltzaile

ditu gaur egun, denak Bizkaian. 2021ean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerri guztietan ipintzea aurreikusten da, Amankomunazgoaren esanetan. Hain zuzen

ere, eguaztenean gaiari buruzko topaketa batean parte hartu zuten Abadiñoko, Atxondoko, Berrizko, Durangoko, Elorrioko, Iurretako, Mañariko eta Zaldibarko Udalek.

Elorrio lehenengoa

Elorrioko Udala izan zen Mugiment txartelera batzea eskatu zuen lehenengoa. Prentsa ohar bitartez jakinarazi zutenez, proiektua uda

Mugiment kirol txartelak 2.790 erabiltzaile ditu gaur egun, denak Bizkaian

amaitu aurretik martxan izatea aurreikusten dute. Hala ere, jakinarazi dute Eusko Jaurlaritzagaz hitzarmena sinatu behar dela lehenengo, eta ondoren osoko bilkuran onartu beharko dela.

Bestalde, Durangoko Udalak astelehenean jakinarazi zuen txartelera gehitzeko eskaria egingo duela. "Uste dugu garrantzitsua

dela durangarrek aukera izatea beste herrietako kirol instalazioak ere erabili ahal izatea, izan ere, durangar askok lan egiten dute Durangotik kanpora. Azken finean, jarduera osasungarriak sustatu gura ditugu, eta ekimen hau bide horretatik doa", adierazi zuen Ane Abanzabalegi zinegotziak; Durango Kirolakeko presidentea ere bada Abanzabalegi.

Bestalde, eguaztenean, Amankomunazgoko presidente Mireia Elkoroiribek azpimarratu zuen Mugiment kirol txartela 2020rako helduko dela, eta Amankomunazgoak jarduera fisikoa eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzearen aldeko "apustu irmoa" egingo duela. "Erakundeetatik erraztasunak eman behar ditugu pertsona guztiek jarduera fisikoa egin ahal izateko, eta, modu horretan, sedentarismoa murrizteko", esan zuen Elkoroiribek.

Mugiment proiektua eta kirol txartela helburu horiek lortzeko tresnak direla nabarmendu zuen Mireia Elkoroiribek.

Iurreta Plazaratu dinamikak Abadetxea erabiltzearen aldeko sinadura bilketa hasiko du

Plazaratu dinamikaren ustez, Abadetxearen ateak berriro ere elkarteei eta herritarrei zabaltzeak onura ekarriko luke, "bizitza soziokulturala berpizteko eta plaza biziberritzeko"



2006an gertatutako sutetik hona, Abadetxea hutsik dago.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurreta Plazaratu dinamikak Abadetxea erabiltzearen aldeko sinadura bilketa hasiko du, Abadetxea herriko ekintza soziokulturaletarako erabili ahal izatea eskatzeko gotzaindegiari. Domekan, Txitxi-burduntzi egunean, hasiko dira sinadurak batzen, eta otsaileko hainbat egunetan egongo da sinatzeko aukera. Herriko elkarteei ere atxikimendua eskatuko diete.

Iurreta Plazaratu dinamikak uste du Abadetxearen ateak berriro ere elkarteei eta herritarrei

zabaltzeak onura ekarriko lukeela, "bizitza soziokulturala berpizteko eta herriko toki garrantzitsua den plaza biziberritzeko". Orain urte eta erdi dinamika abiatu zutenetik, hainbat ekintza antotatu dituzte, eta, diotenez, "argi ikusi da herritarren partetik badagoela Abadetxeari bizia emateko gogoia".

Iurretako herriak eraiki zuen Abadetxea, XVIII. mendearen erdialdean, herrian zeuden abadei aterpea emateko. Beharrezana zuten bitartean erabiliko zutela adostu

zuten alde biek. XIX. mende amaieran, gotzaindegiak bere izenean erregistratu zuen eraikina, eta XX. mende erdialdetik aurrera, herriko gazte, dantzari eta elkarten biltoki ere bihurtu zen, abade batzuek eskuzabaltasunez ateak zabaltu eta gero. 2006an gertatutako sutetik hona, Abadetxea hutsik dago.

Otsailaren 22, 27, 28 eta 29an, eta martxoaren 1ean batuko dituzte sinadurak. Urki liburu-dendan ere uneoro sinatzeko aukera egongo da, jakinarazi dutenez.



Javier Crespo eta Mikel Garaizabal.

Organikoak biltzeko edukiontzi berriak Abadiñon

Amankomunazgoak hamar edukiontzi berri ipini ditu hondakin organiko gehiago biltzera "animatzeko"

ABADIÑO • A.M.

Amankomunazgoak hondakinak biltzeko ontziak eta auto-konpostajerako ontziak banatuko ditu. Ontzi horiek eskuratzeko, abadiñarrek izena eman beharko dute Behargintzan, 94 623 25 22 telefono zenbakira deituta. Neurri honegaz, Abadiñoko udal gobernu taldeak hondakin organiko gehiago birziklatzera

"animatu" gura ditu abadiñarrak. "Ingurumena zaintzea eguneroko lana da eta keinu txikiekin egiten da. Bilketa sistema honi eskerrak, herritarrek aukera izango dute laguntzeko, euren etxeko pribatutasunetik, ingurumena hobeto zainduko duen herri bihurtzeko Abadiño", adierazi zuen Abadiñoko Udalak ohar baten bitartez.



ERAZ.

Hareek denporak!

Arrazola, Axpe eta Apata Atxondo bihurtu ziren eguna

1962ko azaroaren 4an, Arrazolak, Axpek eta Apatak bat egin zuten Atxondo udalerria sortuta. Sasoi hartan Apatamonasterioko alkate zen Claudio Urizar izan zen fusioaren bultzatzailea. Hiru herriek banan-banan baliabide ekonomiko urriak zituztela-eta, bat egitea erabaki zuten. Beraz, indar txikiak batzea izan zen bateratze honen atzean zegoen arrazoi nagusia.

Hasieran, herritarrek erreparoekekin ikusi ei zuten batze hori, baina, gerora, bide egokia izan zela aitortu zuten.

2012an bat-egiteak mende erdi bete zuela kontuan izanda, hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Hiru auzoek herri izaera eta antolamendua zuten sasoian udaletxe izandako erakinetan, plaka bana ipini zuten urteurrena gogoratzeko.

Lau hankako mahaia

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ Udal Taldearen
bozeramalea



Izan gaitezen berdeago!

Berdeago da Durangon iraunkortasunarekin urtero daukagun hitzordua. Berdeago da aldaketa klimatikoaren aurka egiteko gune eta biderik egokiena. Berdea da itxaropenaren kolorea eta oraindik berdeago izatea nahi dugu.

Hainbat izaten dira Berdeago Azokan entzun daitezkeen hitzaldiak eta ezagutu daitezkeen proiektu berriak. Energia berriztagarriak, bioekonomia zirkularra, energia aurrezpenerako irtenbideak, elikadura kontziente eta berritzailea, turismo iraunkorrerako ereduak, produktu ekologikoak eta beste hamaika ekimen interesgarri aurkitu ditzakegu bertan.

Urtetik urtera, bi asteburuz berdeago bihurtzen gara Durangon. Eta zer gehiago?

Erakundeetatik eta enprestatatik ahalegin handia egin da eta egiten jarraitu behar da.

Durangori dagokionez, azken urteotan udalak apustu handia egin izan du bidegorrien sarean. Bestalde, Durangoko Udalak CO-NAMA saria jaso zuen 2018an. Proiektua energia berriztagarriak eraikin publiko zein bizilekuetan integratzean zetzan, eta honekin, eraikin publikoek "nodo energetiko" lez jokatzuz, sortutako energia zerbitzuak inguruko beste eraikin batzuei banatzean.

Zer egingo du gobernu taldeak 2020an? Ba, adibide bat aipatuko dut. EAJk egindako emendakina alde batera utzi eta aurrekontuetan bidegorri berriak edota dau-denak berritzeko dirurik ez du esleitu. Eta horrela, dirurik gabe, ez dago bidegorri sarerik amaitzerik.

Ziur nago, denok kontzientzia apurtxo bat gehiago hartzen badugu, berdeago izatea lortuko dugula. Beraz, izan gaitezen denok berdeago, biziago eta zoriontsuago.

Durungaldea asteen

Ruben Garate gogoratu dute haren heriotzaren hogeigarren urteurrenean

Otxandio I Otsailaren 13an hogeit hiru urte bete ziren Ruben Garate 'Anselmo' otxandiarra hil zela. Garate Alcala Mecoko (Madril, Espainia) kartzelan lagun bat bisitatzetik bueltan hil zen, auto istripuan. Hura gogoratzeko, egunean elkarretaratzea egin zuten Otxandion. "Ruben eta istripuan hildako gainerako hamabost lagunen memoria eta aitortza aldarrikatzen ditugu", esan zuten. Zapaturako Motxotegirako igoera ere antolatu dute.

Santa Ageda eguna koplak abestuz ospatu zuten eskualdeko hainbat herritan

Durungaldea I Durungaldeko herritarrek Santa Ageda koplak abestu zituzten hainbat lekutan. Iurretan koplak abestuz batutako dirua pentsiodunen mugimenduari eman zioten herritarrek. Bestalde, Atxondon hogeita bost herritar ibili ziren koplak abesten. Koruko kideek jakinarazi zutenenez, 1.233 euro batu zituzten, eta familia behartsuei emango dizkiete.

Domekan Basokoipetsu eguna egingo dute Zornotzako San Bartolome auzoan

Zornotza I Garizuma aurreko domeka den honetan, usadioari eutsi eta Basokoipetsu eguna ospatuko dute Zornotzako San Bartolome auzoan. 10:00etan batuko dira, Kalbario plazatik San Bartolomera oinez joateko. Han, sua eta sagardoa egongo dira. Antolatzaileek gogoratu dute, txerriak, ogia eta burduntzia norberak eramane beharko dituela. Nañon Zorrontzan Euskeraz elkarteak antolatu du eguna.

Iritzia

Borrokak eta lanak bere fruituak ekarri dituzte. Zorionak Durangoko gazteei, biba gu!

Zabalduko Ditugu luzaro jardun da lanean Durangoko gazteon emantzipazioaren alde. Gure aldarrien artean, udalak dituen gazteentzako alokairuetarako diru-laguntzen inguruko ekarpenak daude; murrizten joan diren diru partida hau handitzea, besteak beste. Orain arte entzungor egin badute ere, oraingoan entzun gaituzte! Diru partida hau %50ean handituko dutela iragarri dute, 65.000 €-tik 95.000 €-ra, hain zuzen. Egindako lan eta borroka guztiak merezi izan du eta aurrerantzean horrela jarraitu behar dugu. Zorionak Durangoko gazte guztiei!

Honela lortuko baita durangarron etxebizitza arazoari aurre egitea eta. Hala ere, diru-laguntza hauek gazteen egoerara hobeto moldatzeko lanean jarraituko dugu. Esan beharra dago, diru-laguntzetarako programek epe laburrera emantzipazioan lagundu badezakete ere, epe luzera ezinbestekoa dela etxebizitzaren alokairuaren aldeko politikak egitea; alegia, udalaren parke publikoa handituko duten neurriak sustatzea. Durangoko gazteen eskubidea bermatzea ere!

Luisa Oleaga Muñoz, Zabalduko Ditugu taldearen izenean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko

helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.

Bidalitako testuak ezingo 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa
KRAFT SPECIALTIES



Lisabö+Arima

KONTZERTUA
ELORRIO :: Otsailak 15

Doinu gordinak protagonista Arriolan.

AteneON ekimenaren barruan, Lisabö eta Arima taldeek denboraldiko laugarren kontzertua eskainiko dute. Lehenenegoak *Eta edertasunaren lorratzetan biluztu ginen* lanaren aurkezpen biran murgilduta daude. Bestalde, Arima taldeak shoegaze doinuak eskainiko ditu. Kontzertu hau Arriola antzokian bertan izango da, Ateneon barik. 22:00etan hasiko da.

Otsailaren 14an

DURANGALDEA
elkartasuna
Saharar errefuxiatuei laguntzeko Elkartasun Karabana, Abadiño
Eroski saltoki handian eta Durangoko Alde Zaharreko Eroskin. Rio de Oro elkarteak elikagai bilketa antolatu du. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluzea eta sardinak oliotan, eta konpresak batuko dituzte. Otsailaren 15ean ere egongo dira.

DURANGO musika
Dj Hija de Nopal, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

DURANGO musika
Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialak 25 urte egiten dituela ospatzeko kontzertua, 19:00etan, eskolako Areto Nagusian. Eskolan irakasten diren lau hizkuntzetako abesti ezagunak eskainiko dituzte.

DURANGO antzerkia
‘Solo se vive una vez’ (Gora ta Gora antzerki taldea), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Adinekoek antzeztutako amateur antzerkia.

ELORRIO dantza
‘Gauekoak’ (Kukai dantza taldea), 20:30ean, Arriola antzokian.

Otsailaren 15ean

ABADIÑO sanblasak XXXII. Burduntziko Bildots Txapelketa, 09:00etan, probalekuaren alboan. **Bazkaria erretako bildotsekin**, 14:00etan, probalekuan.

BERRIZ antzerkia
‘Nire aita ogro bat da’ (La Baldufa konpainia), 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘Solo se vive una vez’ (Gora ta Gora antzerki taldea), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Adinekoek antzeztutako amateur antzerkia.

DURANGO bisita gidatua
‘Aztarnak denboran zehar’ (María Jesús Cuetoren lanak), erakusketarako bisita gidatua, 12:00etan, Arte eta Historia Museon. Erakusketa martxoaren 8ra bitartean egongo da zabalik

ELORRIO batzarra
M8 antolatze batzarra, 16:00etan, Iturri kultur etxean. Mugimendu Feministak deituta.

IURRETA topaketa
‘Imagine’, topaketa-hitzaldi-tailerra Luna Virardi ilustratzaile eta egileagaz, 11:00etatik 13:00etara, herri bibliotekan.

MALLABIA inauteriak
Txixiburduntzia eta txokolatada, 19:00etan, herriko parkean. Udalak antolatuta, Guraso Elkartearen laguntzagaz.

Otsailaren 16an

ABADIÑO inauteriak
Txixiburduntzia, 12:00etatik 14:00etara, eskolako aterpean. Makila eta edaria eroan behar dira. Zelaletako Guraso elkarteak antolatuta.

DURANGO dantza
Kriskitin dantza taldeagaz kalejira, 12:00etan, Santa Anatik. **‘Bortxatzaileak zu zara’ Batukandra taldeagaz**, 12:00etan, Euskadi iturrian. **‘Hautsi kateak’ flashmoba**, 13:00ean, Ezkurdin.

DURANGO inauteriak
Txixiburduntzia, 11:00etan, Madalenako plazan. Auzo Alai auzo elkarteak antolatuta. Txorizoa, ogia, edaria, burduntzia eta sua elkartearen kontu.

DURANGO inauteriak
Txixiburduntzia, Alpino Tabirak antolatuta. Aurretik, mendi ibilbidea. Andra Marian, 09:00etan.

DURANGO dantza
‘Ehuna’ (Txintxirrin konpainia), San Agustin kulturgunean. Hiru emanaldi izango dira: 11:00etan, 12:00etan eta 18:00etan.

ELORRIO inauteriak
Pasealdia, 10:00etan, Herriko plazatik. Familian egiteko ibilbide luzea eta laburra.

Txixiburduntzia, 12:00etan, San Josen (euria bada, erabilera anitzeko aretoan). Lau Eskola elkarteak eta udalak antolatuta. Sua, edaria eta janaria antolatzaileek ipiniko dituzte.

IURRETA inauteriak
Txixiburduntzia, 17:30ean, Aita San Migel plazan. Aita San Migel Jai Batzordeak antolatuta.

ZALDIBAR inauteriak
Mendi irteera, 09:30ean, udaletxetik: Zaldibar-Arietzu-Goierri. **Txixiburduntzia**, 11:00etan, Goierri. Jatekoa eta edatekoa antolatzaileek ipiniko dute.



Papel Mache

JAIALDIA
DURANGO :: Otsailak 15

Angelman Syndromearen Nazioarteko Egunagaz bat egin da, jaialdia izango da, bihar, Plateruenean, 17:00etan hasita. Papel Maché-k kontzertua eskainiko du, 19:00etan.

Naiz Market, Durangon

MERKATUA • Naiz Market merkatu alternatiboa egingo dute, otsailaren 15ean, Durangoko Joxe Miel Barandiaran kalean. Azoka 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Durangoko MIH Events elkarteak sortutako proiektua da Naiz Market. Elkar-teak komertzio txikiari laguntzea du helburu, eta bide horretan hainbat merkatu antolatu gura dituzte, azaldu dutenez.



Seiurte, Ezpalak eta Gora Etorri, Hiltegixen urteurrena ospatzeko

URTEURRENA | Berrizko Hiltegixe gaztetxeak XXI. urteurrena ospatuko du asteburu honetan. Gaztetxeko kideek gazte bazkaria eta karaokea antolatu dituzte egun haue-tarako, eta kontzertua ere bai. Hartara, 20 urtetik gorako ibilbidea bete duen Seiurte talde berriztarra gonbidatu dute urteurrena ospatzera. Durangoko Sorginola gazte-txearen inguruan sortutako Gora Etorri taldeak ere joko du. "Hemendik At bizi eza-ren nostalgiak bultzaturik" sortutako taldeak agrodance doinuak eskainiko ditu.

90eko hamarkadako rock alternatiboarekiko pasioak eramanda sortutako Ezpalak taldeak ere emango du kontzertua Hiltegixe gaztetxean.

Otsailaren 14an

Dantzari Dantza eta luntxa, 20:00etan.

Karaokea eta Mojito gaua, 22:00etan.

Otsailaren 15ean

Gazte bazkaria, 15:00etan.

Karro-poteoa, 18:30ean, gaztetxetik irtenda.

Kontzertua: Seiurte + Ezpalak + Gora Etorri, 22:30ean.

Otsailaren 17an

ZORNOTZA jardunaldia
Familientzako elikadura eskola: 'Nola jan dezakegu hobeto eta osasuntsuago?', 17:30etik 19:00etara, Zelaia zentroan. Berton Bertokoak antolatuta.

Otsailaren 18an

DURANGO solasaldia
'Hezurren erretura' (Miren Agur Meabe) liburutik ateratako testuekin solasaldia, 17:00etatik 19:00etara, Udal Euskaltegiaren azpiko Berbagunea aretoan. Miren Agur Meabe idazleak berak ere parte hartuko du. Hitzez eta Ahotsez jardunaldien barruan antolatuta euskaltegiagaz batera.

ZORNOTZA zinekluba
KINEzinekluba: 'Touch me not' (Errumania, 2018) filma, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 19an

BERRIZ zinema
'Eskerrak jainkoari' filma, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO opera
'Turandot' aurrez grabatutako opera HDn, 20:00etan, Zugaza Zineman.



Otsailaren 21ean

DURANGO musika
Dj Jesus Morillo, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

IURRETA antzerkia
'Pronoia' (Virginia Imaz), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Bizi dantza' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots + Udabarri dantza taldea), 17:15ean eta 19:15ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 28ra arte

ELORRIO erakusketa
'Arima hondartua' (Jon Rodriguez Bilbaoren argazkiak), Iturri kultur etxean.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **1917**
barikua 14: 22:00
domeka 16: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Hasta que la boda nos separe**
barikua 14: 19:30/22:00
zapatua 15: 19:30/22:30
domeka 16: 18:45/21:00
astelehena 17: 18:30/21:00
martitzena 18: 20:00
eguzartena 19: 20:00

• **Fantasy Island**
barikua 14: 19:30/22:00
zapatua 15: 18:00/20:15/22:30
domeka 16: 16:30/18:45/21:00
astelehena 17: 18:30/21:00
martitzena 18: 20:00
eguzartena 19: 20:30

• **Sonic**
barikua 14: 19:30/22:00
zapatua 15: 17:00/19:30/22:30
domeka 16: 16:30/18:45/21:00
astelehena 17: 18:30/21:00
martitzena 18: 20:00
eguzartena 19: 18:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Fortuna**
domeka 16: 20:00
astelehena 17: 20:00
• **Espías con disfraz**
domeka 16: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Adú**
barikua 14: 20:15
zapatua 15: 19:30/22:00
astelehena 16: 20:00
martitzena 17: 20:15

• **Lur eta Amets**
zapatua 15: 17:00
domeka 16: 17:00

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

“Hasiberriak diren taldeetan ohi den lez, gure helburua lehenengo diskoa grabatzea da, baina ez dugu presarik”

Berrizko Dube laukote gazteak lau abestiko maketa kaleratu du urtea hasteagaz batera; bertan, rock doinu klasikoak baino gehiago aurkitu daiteke



Dube, Berrizko Kultur Etxean. PEIO AGIRRE

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Berrizko harrobi amaiezinetik beste harribitxi bat irten da: Dube. Orain-tsu, lau abestiz osaturiko maketa kaleratu dute. Aurkezpen gutuna esku artean, irrikan daude eurek ondutako rock doinuak oholtza gainean defendatzeko.

Nogaz grabatu duzue maketa?

Estoldetan estudioan grabatu genuen, Berrizen, Aitor Agirre-ren eskutik. Asteburu batean grabatu genuen ia dena, goizetik gauera lan eginez. Bere teknikak erabilia, Aitorrek asko erraztu zigun prozesu guztia.

Zelan sortu zen taldea? Nortzuek osatzen duzue? Zeintzuk dira zuen influentzia nagusiak?

Iker Hernandezek (bateria), Eñaut Armentiak (baxua eta abeslaria), Aiert Agirrek (gitarra eta koruak) eta Iker Olabegoiak

(gitarra) osatzen dugu taldea. Laburbilduz, esan genezake eskolak eta musikaren munduak eraman gaituztela elkar ezagutzera. Hasieran, Hernandezek, Eñautek eta Aiertek osatzen genuen taldea, baina Olabegoiak

“**60ko eta 90eko hamarkadetako rocka dugu iturri, baina gaur egungo rockari ere jarraitzen diogu**”

taldean sartzeko keinua egin zigun, eta horrela osatu genuen taldea azkenean. Influentzia aldetik, oso aberatsak gara; jazz generotik rock gogorrenera dugu finkatuta gure gustua, baina, batez ere, gure musikak 60ko eta

90eko hamarkaden arteko rocka du energia iturri. Led Zeppelin, Jimi Hendrix, Cream, Nirvana... oso gogoko ditugu. Gaur egungo rockari ere oso gertutik jarraitzen diogu: Foo Fighters, Berri Txarrak, Morgan, Mocker's, Ezpalak...

Oker ez banago, taldekideetarikoz batzuk The Van taldeko kideak ere bazarete. Zelan egingo duzue talde bietan aritzeko?

Hernandez eta Eñaut gabiltza The Van taldean. Astean pare bat entsegu ditugu, bata Dubegaz eta bestea The Vanegaz. Gure ikasketetarako denbora gehiago behar izatekotan, entseguetarikoz bat asteburura pasatzen dugu. Kontzertuei dagokienez, ez dugu arazorik izaten egutegiagaz. Dena dela, taldean denok gaude antzera: Aiert The North eta Stormegaz eta Olabegoia Etsipenegaz.

Hainbat kontzertu eskaini duzue azken hileetan. Gustura zaudete taula gainean?

Oso gustura. Oraindino esperientzia falta zaigu, baina gero eta solteago gabiltza eszenatokietan.

“**Oraindino esperientzia falta zaigu kontzertuetan, baina geroago eta solteago gabiltza eszenatokietan**”

Kontzertuen balantzea egiten dugu beti, ondo zer egon den, eta zer ez, eta horrek geroago eta hobeto jotzera eramaten gaitu. Azkenengo kontzertuak oso garrantzitsuak izan dira: Lukiek taldeagaz Bakion, eta Mocker's

durangarrekin Berrizen, 360° formatuan.

Aurrera begira, zer plan dituzue?

Hasiberriak diren taldeetan ohi den lez, helburu nagusienetarikoz bat gure lehenengo diskoa grabatzea da, baina ez dugu presarik. Apurka-apurka, kanta berriak sortzen eta esperientzia hartzen goaz. Maketa honek hainbat lehiaketatara aurkezteko aukera eman digu, Gaztearen lehiaketara eta The 80's tabernakora, eta gehiagotara aurkezteko asmoa dugu.

Zerbait gehitu gura baduzue...

Martxoan pare bat kontzertu ditugu Durangon: 14an The 80's tabernako lehiaketaren parte den kontzertua izango dugu, eta 28an Sorginola gaztetxean izango gara, Mocker's taldeagaz. Maketaren CDa eta kamiseta salgai ditugu.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

'Aztarnak denboran zehar' erakusketan, Cuetoren 40 urteko ibilbidea biltzen duten lanak ikusgai

Maria Jesus Cueto eskultura irakaslea da EHUn; martxoaren 8ra arte egongo da ikusgai erakusketa, Durangoko Museoa

ARTEA • ARITZ MALDONADO

"Artista gazteei bultzada ematea oso ondo dago, noski, baina zer gertatzen da aitortzarik jaso barik 40 urtetik gorako ibilbidea duten artistekin?", galdetzen du Garazi Arrizabalaga Durangoko Arte eta Historiako Museoko zuzendariak. *Aztarnak denboran zehar* erakusketaren helburuetariko bat horixe da, hain zuzen ere, lau hamarkada baino gehiagoko ibilbide artistikoa (baita irakasle-lanetan ere) duen Cuetoren ibilbidea erakustea. Pozik agertu da Cueto bera, erakusketa egiteko aukeraketagaz. "Proiektu esanguratsuak dira bildu ditudan denak, eta ikerketagaz ere oso lotuta daude; ikerketagaz eta sorkuntzaren arteko hartu-emanekin", dio Cuetok. Obren artean, bideoz eginiko performance bat ere badago, 2004ko martxoaren 11ko erasoei buruzko *El palacio de la medusa*. Cuetoren lana oso lotuta dago paisaiari eta arkitekturen. Besteak beste, burdinezko

eskultura bat du Azterlanek Durangon duen sailean.

Bisita gidatuak

Durangoko Arte eta Historia Museoak bisita gidatuak eskai-

ni ohi ditu erakusketa bakoitzagaz. Egilearen obra beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera eskaintzeaz gainera, kasu honetan egilea bera ezagutzeko aukera egongo da, izan ere, berak

eskainiko ditu bisita gidatuak. Lehenengoa zapatu honetan izango da, 12:00etan. Bigarrena otsailaren 23an izango da. Ohi den lez, aurretik izena eman beharko da.



Ane Abanzabalegi zinegotzia, Maria Jesus Cueto artista, Garazi Arrizabalaga museoko zuzendaria eta Jorge Varela zinegotzia.

Zaldibarko Koralak Balendin Lasuen omenduko du San Andres elizan, domekan

Lasuen herriko koraleko sortzaileetarikoa bat izan zen; joan zen abenduaren 26an hil zen



Nerea Mujika eta Balendin Lasuen Gerediagaren 50 urteurrenean.

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Balendin Lasuen joan zen abenduaren 26an hil zen, 95 urte zituela. Herriko politikagintzan eta kulturegintzan pertsona ezaguna zen. Besteak beste, herriko alkatea izan zen frankismo osteko urteetan. Herriko koraleko sortzaileetarikoa bat ere izan zen. Horregatik, abesbatzak omendu egingo du Lasuen, domekan. Kontzertua Zaldibarko San Andres elizan egingo dute. Euskal kulturaren bultzatzaile sutsua izan zen zaldibartarra. 60ko hamarkada amaierako eta 70eko hamarkada hasierako testuinguru nahasian, Euskal Liburu eta Disko Azoka zabaltzeko lan egin zuen. Gerediaga elkarteak antolatutako beste hainbat ekitalditan ere lan egin zuen.

Gai librea

Josune Aranguren Zatika
Filosofoa



Otsaila eta apirila

Argitasuna, eguzkia eta ilargia, egunaren iraupena, landareen zikloak, luraren aldaerak eta hozberoa zituzten inspirazio nagusi gisa hileak izendatu zituzten euskaldunek. Ondokoa diote hiztegiek otsail eta apirilari buruz.

Otsaila, barandaila, barantaila, zezeila edo kataila bi garairen arteko mugarria da. Otsoen hila ere bai.

Apirila, gorraila, jorrailla, apiribila. Jorratu egin behar da jorrailean: lurra apur bat harrotu, alferrikako belarrak atereaz. Landu adierazteko ere balio digu jorratu-k. Eta baita gaizki esaka aritu edo kritikatu esateko ere.

Apirilean hauteskundeak. Uzta nagusia prestatzeko garaia. Gero geroakoak, baina apirilean apirilekoak.

Martxo dago otsail eta apirilaren artean, Marte jainko gudariaren omenezkoa. Jainkoen laguntza eskatu, armak garbitu eta aurrera.

Sineskeriazaleek badute zer gehitu bisurteek historiako lerroetan idatzitakoari: Titanic, Auschwitz, Gandhi eta beste batzuen erailketei Zaldibarko katastrofea gehitu behar. Otsailak erabaki du 2020 bisurtea izatea. Aurten inoiz baino gehiago Zaldibar inguruan gehiegizko egun bat izan du otsail honek.

Langileak lur azpian daudela, hauteskundeetarako helburu nagusiak zerrendatu beharra beste behin ere. Propaganda idatzi beharra ekologia, solidaritatea, eskubideak, elkarlana eta herrigintza hitzak hizki larrietara ekarriz, ikara barik.

Bisurteetan uzta guztiz ona edo guztiz txarra izaten omen da.

Otsailean lainoa noraino, elurra apirilean haraino.

<http://josunearanguren.blogspot.com/>

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserriarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak



Elorrioko emakumeen errugbi taldea, orain asteburu bi La Unica taldearen kontra jokaturako partiduan.

40 bat jokalarigaz emakumeen errugbia berpiztu da Elorrion

Euskadiko Ligan izena ematen badute, DRT-Elorrio derbia berreskuratuko dute, aurten gizonekin gertatu den moduan

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Udatik hona, Elorrion jauzi handia egin dute emakumeen errugbi taldea berreskuratuzko. Herri ekimenetik sortutako txinpartari hauspoa ematen asmatu du Elorrio Rugby Taldeak eta, gaur egun, 40 bat emakume astean birritan batzen dira entrenatzera. Ondo bidean, taldea ofizialki sortu eta Euskadiko Ligan parte hartuko dute hurrengo denboraldian.

Iratxe Juez klubeko zuzendaritza batzordeko kideak esplikatu du sorrera zelan izan zen: "Udan, neska batzuk errugbia ezagutu gura zutela eta entrenatzea gustatuko litzaie-keela esatera etorri zitzaizkigun. Lau-bost ziren hasieran. Gero, hoge, eta denbora batera berrogei. Bat-batean etorri zitzaigun proposamena, eta horri bidea ematea izan da gu-

re lana". Asko kuadrilla berekoak dira, 17tik 23 urtera artekoak, eta gehienek ez dute esperientziarik errugbian. Jokalaririk gehienak elorriarrak dira. Durangoko lau-bost, Atxondoko bi eta Elgetako bat ere taldera batu dira.

Emakume hauek tradizio bat sortzen dabiltzala esatea ez litza-

Lagun arteko partidu bat jokatu dute La Unica taldearen kontra, eta sentsazio oso onak utzi dizkie

teke zuzena; tradizioa berreskuratzen dabiltza. Izan ere, Elorriok izan zuen emakumeen taldea orain hamarkada bi baino gehiago. Goi mailako jokalaria eman zituen,

eta selekzioagaz nazioarteko partiduak ere jokatu zituzten: Joana eta Eider Barrena ahizpek eta Olatz Fernandez de Arroiabek, besteak beste. Urteen poderioz, belaunaldi berriek ez zuten erreleborik hartu eta taldea desagertu egin zen. Harrezkero, Elorrion izan dira emakumezko jokalaria beheko mailetan, baina sekula ere ez talde bat sortzeko adina, eta, nagusitan, kanpora joan behar izan dute.

"Ilusioa" gidari

Klubeko hiru lagunak hartu dute jokalaria entrenatzeko ardura: Felix Miguel eta David Palacios dira lehenengo entrenatzaileak, Ekain Cengotitabengoaren laguntzagaz. Miguelek jokalarien "ilusioa" azpimarratu du: "Hasieran, astean behin batzen ginen entrenatzeko,

eta jokalariek eurek bigarren egun bat eskatu zuten".

Hileetako lana bere fruituak ematen dabil. Orain asteburu bi, lagun arteko partidu bat jokatu zuten La Unica taldearen aurka, eta oso sentsazio onak utzi zizkien. Esperientzia handiko talde baten kontra 27-5 baino ez zuten galdu estreina-ko neurketa, eta horrek erakusten du asko ikasi dutela denbora gutxian. "Ez nuen uste hainbeste aurreratuko zutenik. Pentsatzen nuen baino hobeto defendatu zuten", gogoratu du Miguelek. Martxoan, beste lagun arteko partidu bat jokatzeko aurreikusten dute, eta, beharbada, ez da azkena izango. "Eskatu egiten digute eta!", gaineratu du Miguelek.

Osagai hauekin, nahitaezko galdera bat egin beharra dago: taldea ofizialki sortzea eta liga batean

parte hartzea da hurrengo urratsa? "Jokalariek erabaki behar dute", dio Miguelek, zuhurtziaz, baina, ikusitakoak ikusita, itxaropentsu dagoela onartu du. Miren Zorrakin jokalaria seguruago mintzatu da: "Hurrengo urtean taldea sortu eta ligan parte hartuko dugula esango nuke".

Bere sasoian, Elorriok izan zuen emakumeen taldea, eta goi mailako jokalaria eman zituen

Egitasmoa guztiz gorpuzten bada, Euskadiko Lehenengo Mailan hasiko dute euren ibilbidea. Hain zuzen ere, maila horretan dabil Durango Nissan Gaurisa. Beraz, emakumeetan Durangaldeko derbien atarian egon gaitezke, aurten gizonen taldeekin gertatu den moduan.



MIREN ZORRAKIN GONGETA
Elorrio, ikaslea

Taldeko jokalaria guztien artean, errugbian aurretik aritu izan den bakarrenetarikoa da. Denbora batean errugbitik kanpora ibili eta gero, itzultzea erabaki du eta baidor ikusten du etorkizuna.

“Gogotsu gaude eta osagai guztiak ditugu taldea aurrera eramateko”

Umetan, hiru-lau neska ibiltzen ziren errugbian, mutilekin batera. Orain, etapa berrian, lehenengo entrenamenduan ia 40 jokalaria ikusteak "emozionatu" egin zuen Zorrakin

Noiz hasi zinen errugbian?

Orain zortzi bat urte hasi nintzen. Errugbian jokatzen zebilen lagun batek errugbia probatzera animatu gintuen Udane Azkarraga-Urizar laguna eta biok. Gazte mailetan mutilek eta neskek elkarregaz jokatzen dute, eta 16 urtera arte han ibili ginen. Adin horretatik aurrera, seniorren talde bat bilatu beharra dago.

Kanpora joan zinen?

Ez, besoko lesio batengatik errugbia utzi nuen eta urte bi jokatu barik eman ditut.

Zelan batu zinen talde berrira?

Talde berria neska batzuek erdi brometan hasitako kontua da. Whastapp talde bat sortu zuten eta apurka handitzen joan zen. Ni taldera batu zen lehenengotarikoa izan nintzen. Bilboko

jaien bueltan izango zen, abuztu inguruan.

Hazkunde azkar honek harritu egin zaitu?

Ez nuen itxaroten hainbeste lagun batzea. Hasieran zazpi ginen, eta denbora gutxian ia 40ra hel- tzea harregarria izan zen. Errug- biko nire lehenengo etapan, hi- ru-lau neskak jokatzen genuen. Horregatik, lehenengo entrena-

menduetara joan eta hainbeste jokalaria ikusteak emozionatu egin ninduen. Eskerrak eman gu- ra dizkiot Elorrio Rugby Taldeari eskaera aintzat hartu eta bidea ematearren.

Errugbian esperientzia duen baka- rrenetarikoa zara.

Esperientziadun sei jokalaria gau- de, gainerakoak hasiberriak dira. Jokalarien artean konfiantza dagoenez, sarritan guri galdetzen digute. Ahalegintzen gara dakigu- na eurei helarazten.

Taldea Euskadiko Ligan ikusten duzu hurrengo denboraldian?

Bai, taldea irtengo dela uste dut. Denok gogotsu gaude eta osagai guztiak ditugu taldea aurrera eramateko.

Durangaldeko hiru gaztek Munduko Sokatira Txapelketan parte hartuko dute

Oier Mendizabal, Martxel Azkorbebeitia eta Xabier Irazola 23 urtez azpiko Euskadiko Selektzioagaz arituko dira Irlandan, otsailaren 20tik 23ra lehiatuko den txapelketan



Oier Mendizabal, Martxel Azkorbebeitia eta Xabier Irazola Astolan izan ziren martitzenean, Euskadiko Selektzioa ekipazioa hartzen.

SOKATIRA • JOSEBA DERTEANO

Otsailaren 20tik 23ra bitartean, Munduko Sokatira Txapelketa jokatu da Irlandan, eta Durangaldeko hiru tiralari gazte hantxe izango dira: Oier Mendizabal (Abadiño, 2001), Martxel Azkorbebeitia (Abadiño, 2004) eta Xabier Irazola (Durango, 2000).

Hirurak Abadiño Sokatira Taldeko kideak dira eta Euskadiko 23 urtez azpiko selektzioagaz arituko dira Irlandan. Hirurentzat lehenengo esperientzia izango da munduko txapelketa batean.

Abadiño Sokatira Taldea eraberritze prozesu batean murgilduta dago azkenaldian. Goma gaineko modalitatean aro bat markatu zuten tiralariak erretiratzen joan dira apurka-apurka, eta belaunaldi be-

rriagaz lanean dabilta gaur egun. Hiru gazteak belaunaldi berri horren isla dira. Orain hiru-lau hilabete hasi ziren sokatiran. Abadiñoko Sokatira Taldean aritutako Edu Mendizabalen, Iker Azkorbebeitiaren eta Lorenzo Irazolaren semeak dira. "Aitak esan zidan jende faltan zebiltzala eta ea animatuko ginen, eta ea gure ingurukoei ere galdetuko genien. Probatzea erabaki genuen eta gaur egun oso gustura gabiltza", azaldu du Oier Mendizabalek.

O. Mendizabal: "Sekula ez gara munduko txapelketa batean egon; esperientzia polita izatea itxaroten dugu"

Gazteen taldean hasi, eta apurka nagusiekin ere esperientzia hartu dute. Gorakada hori ez da oharkabea igaro eta Euskadiko Selektzioaren deia da horren adibidea. "Sekula ere ez gara munduko txapelketa batean egon. Ilusio handia egiten digu eta esperientzia polita izatea itxaroten dugu", dio Mendizabalek.

Kirol "gogorra, baina polita" Hasieran uste zuen baino "kirol gogorragoa" iruditzen zaio sokatira Mendizabal gazteari. "Hasieran, beste sokatira taldeetako gazteen kontra aritzen ginen eta eraman-garriagoa zen, baina nagusiekin hasi garenetik, gogorragoa da. Baina, aldi berean, erronka polita ere bada", adierazi du.



Bitor eta Celia Delgado.

Delgado neba-arrebak, jaurtiketa luzeen etorkizuna

Celia Delgadok urrezko domina bi irabazi ditu Euskadiko txapelketan, eta Bitor Delgadok urrezko eta brontzezko bana

ATLETISMOA • J.D.

Celiak 14 urte ditu eta Bitorrek, 16. Neba-arreba abadiñarrek beste kirol batzuk probatu zituzten umetan —saskibaloia Celiak eta futbola Bitorrek—, baina argi dago atletismoko jaurtiketa luzeetan aurkitu dutela euren neurriko kirola. Horixe erakutsi dute Sekulebedarra taldeko jaurtitzaileek

Gasteizen lehiatutako Euskadiko Txapelketan. Bien artean lau domina irabazi dituzte, euretariko hiru urrezkoak. Eskualdeko kirolarietako urrezko domina bakarrak izan dira.

Ez da txapelkun geratzen diren lehenengo aldia. Iaz ere, nor bere mailan, onenak izan ziren, etorkizuna badutela erakutsiz.

Ruben Perez izango da Baqué taldeko zuzendari berria

TXIRRINDULARITZA • J.B.

Lau urtean Euskadi-Murias taldeko zuzendaria izan den Ruben Perez zaldibartarra izango da Baqué Team taldeko kirol zuzendaria denboraldi honetan. "Orain bost urte, kirol zuzendari lez hasi

nintzen Baqué taldean, eta lau urte profesional mailan egin eta gero dena hasi zen tokira itzuli naiz", adierazi du Perezek. Zaldibartarraren berbetan, gazteei laguntzen arituko da, eta bere jakintza partekatuko du eurekin. "Hasieretara itzuli naiz, formakuntzatik hasi eta profesional mailako jauzia egin aurreko talde-rra", esan du. Perezek Adrian Lopez ordezkatuko du.

Asteko kirolaria



URDAX MAGUNAZELAIA AGIRRE

Abadiño, Harri jasotzailea

Sei urtean harririk jaso barik egon eta gero, otsailaren 3an, San Blas egunean, Urdax Magunazelaia pla-

“Luis Mari Bengoak burua ondo berotu zidan eta txapelketara aurkeztea erabaki nuen”

Urrezko Harrijasotze txapelketako kanporaketa bat izango du asteburuan Magunazelaia

zara irten zen berriro. Abadiñarrak Urrezko Harrijasotze Txapelketako kanporaketa nagusitasunez irabazi zuen, erakustaldia emanda. Asteburuan, Oñatin izango du hurrengo kanporaketa.

San Blas egunean berriro harria jasotzen ikusi zintugun. Zer dela-eta hartu duzu plazara itzultzeko erabakia? Luis Mari Bengoak berriro hasi behar nuela esaten zidan, burua

